

## *Maria Urizar Murua*

*Soraluze  
Gipuzkoa (1919)*

Aurkibidea

**Biografia**



San Andres auzoko Iturriaga ("Iturrixa") baserrian jaio zen 1919an; 7 anai-arreba ziren. 25 urterekin ezkondu zen eta ezkondu ostean kalera joan zen bizitzera. Baserriko bizimoduaren gaineko kontu ugari kontaktzen ditu.

**Zintak**

**SOR-041**

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-07-28

- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu

## SOR-042

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-07-28
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

## Pasarteak

### 1. Tratuarekin plazara; txanpon-klaseak

- **Erref:** SOR-041/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:01:02. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

#### Laburpena:

<p>Ezkonduta arte baserrian bizi izan zen. Bera jaisten zen plazara saltzera baserrietik. Zer jenero saltzen zuen plazan. Orduko txanponak. 7.000 pezeta hartzen zituen egunean; orduan diru asko zen. Esne-litroak lau txakur haundi balio zituen, eta esnea 15 egunetik kobratzen zuen. Kalkuluak nola ateratzen zituen. Duro-zilarrak pisua zuenez, etxera joan aurretik Gilanera joaten zen txanponak aldatzera.</p>

#### Transkripzioa

- Basarrixan jaixo eta noiz arte bizi izan zifan bertan?  
 - Ni hogeta bost urtekin ezkondu nintzan ta hogeta bost urtera arte. Bai.  
 - Orduan, e... bizimodua ta bertako...  
 - Bueno! Eta gero beste sei hillebetian egon nintzan, porke ez zeuan ifior ezkondata, anaia euan ezkontzeko, baiña zela basarrixan ifior ez zan geratzen, sei hillabete ein nittun ezkondu kalera, honaxe, eta basarrixan harik eta haura ezkondu arte. Bai, bai. Han ez zeren ohittuta be kalera-ta etortzen be, ta tratura-ta, ta ni, badakizu, plazara tratura etortzen nitzan. Esan notsuen, generuakin kalera etortzen nitzan. Astua eta, esniak, goizian jatxi, bost edo sei behi jatxi goizian jaikitta, seirak inguruan, eta marmittak eta bete... Ez zeuan kamiñorik eta ezebe. Hartu astua, berduria-ta igual eukitzen giñuan askan freskotxuao eukitzeko, eta porrua edo lekia edo azak eta azalga ta arrautzak eta... Esan notsuen lehenao be, arrautzak dozenia ekarri bihar, ba, ta... A! Hamaika zeozen ta... nere penia, ba! Dozenia ez eruan bihar plazara! Esaten neban, ba, tratuan hartzen nittuan ba zazpi... milla pezeta. Orduko denporetan, hemen fabrikan ebizenak eta bost milla pezeta inguru egunian irabazten zebe. Dirua zidarra euan orduan, duro zidarra. Ta, e... pezetia ta gero txakur haundixa. Zentimuak haundixak zian, kobrezkuak zentimuak, oin, e... eurua, osea, zentimuak oin daozen moduan. Ta etortzen nintzan esniekin ta plazara, eta tratua.

Arrautzok hartu eskuetan; astua igual antxitxika hasten zan ta arrautzak apurtu be igual. Pikuak eta keixak eta hola be eskuetan hartu mokorrian, holaxe, eta kalera ekarritta, plazan. Ta zazpi millla pezeta t'erdi, zortzi, egunian holaxe hartzen nittuan plazan. Diru asko zan ordurako!

- Jolin...

- Bai, bai, bai.

- Basarrixan, gaiñera...

- Bai. Ta esne-kinzenak, berriro, hamabost egunetik kobratzen giñuzen. Bai. Hamabost egunian ekartzen zan esnia. Lau txakur haundi balixo zeban harek, zentimua litruak. Etxe-etxera ekarten zan esnia baserri... honaxe kalietan dana. Eta esne-kinzenak hamabost egunekuak. Ointxe be goguan daukat zenbat kobratzen nittuan. E... Bi litrokua zan hamaika pezeta eta bi zentimo; lau, txakur haundixan. Ia zelan etaratzen dan, etaratzen dozun hori. Eta gero, kuartillu, litro t'erdikua, hiru tamaiño, litrua eta kuartillu, litro t'erdikua zortzi eta sei zentimo eta litrokua bost pezeta eta sei, sei zentimo.

- Goguan dakazuz [...], e?

- Dana pezetak. Gero hartzen neban, kinzenia kobratzen zanian, hogeta hamar duro edo zidarretan dana, ta pixua mantalian ta basarrira ixo bihar ta pixuakin amantala be beheara jausten jatan. Ta juaten nitzan, hamen, Gilaneko tabernia dao, hamen, zubixa pasautako frentian. Hor hil zan Gila bera ta... Gilanekua zan hori. Eta faten nintzan ta: "Gila, emongo dostazuz papelak hogeta hamar duro?" Zidarretan lagatzen notsan eta hogeta hamar duro hartzen nittuan. Esne-kinzenetan hori! Hamabostian edo, e!

- Bai, bai.

- Papela eruateko etxera. Hogeta hamar duro zidarrok eruten nittuan gora.

## 2. Zilarrezko duroak

- **Erref:** SOR-041/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

### Laburpena:

Lehen ez zen apreziatzen zilarra. Geroago etxerik etxe zilarra batzen ibili omen ziren batzuk. Euren amak ezkondu zirenean duro bana eman zien eta berak bere seme-alabei. Amadeo erregearen irudi zuten duro haiek.

### Transkripzioa

-Orduan ez zan apreziatzen zidarra ta! Eta gero berriro badakizu zidarra zela... batu zittuen danak hemen... alemanak ziala, ez ziala ta. Danak, zidarra dana batu zeben etxerik etxe. Baiña gure amak laga zittuan berrogeita hamarren bat edo gehixao, e... [duro han], ta ezkondu giñanian danori emon zoskun. Neri emon zostazen hamar eta semieri be bai ta danori partidu zoskun. Ta nik uste, ezkondu dianian, neuk emon notsen. Ondio nausixak eukiko dittu gurian. Amadeo " no sé "... [zein da?] hemezortzi? Zelakua zan? "Mil novecientas dieciocho" kua edo erregia, Amadeo " no sé cuántos ". Erregian, e... zera be baneukan. Eta etorten jatan hemen joiero bat eta esan notsan: "Hemen ez dakit zidarrana zenbat aintzen dosten. Hiru bider gehixao ta zidarra pagatzeko" ta "Ez eizu saldu, Maria, horrek egunetik egunera balixo dabe gehixao-ta!" Gorde ein nittuan

harik eta umiak ezkondu arte!

- Ondo.

- Ez daukat oin, e! Emon notsen. Batari ezkontzeko. Ezkontzeko be arrak eruaten zian lehen. Eta neu be pezeta bikuekin ezkondu nitzan, pezeta biko zidarrekin. Badakizu. Oin bape bae. Oin juezetik eta ez da diru hori usauko. Baiña esne kinzenok holaxe [erretzen] nittuan.

### 3. Baserrian lan gogor, baina jan ere ondo

- **Erref:** SOR-041/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

#### Laburpena:

<p>10-12 bezero izaten zituzten. Kalera esnea saltzera etorritakoan baserrikoaren aldean bizimodu lasaia zela konturatzen zen. Baserrian seietan jaikitzen zen egunero eta kaleko buelta egin ondoren ere beti egoten zen lanen bat egiteko. Amak gosari ona jartzen zien; baratxuri-zopa egiten zuen egunero eta gero urdaiazpikoa gainean. Urtean hiru txerri hiltzen zituzten etxerako. Ardoa Bergaratik ekartzen zuten zahagian. Hiru morroi izaten zituzten etxean. Baserrian lan ugari egin behar izaten zen, baina jan ere ondo egiten zuten.</p>

#### Transkripzioa

- Esaten dozu, e... esnia-ta bezeruei zuzenian...

- Bai, bai. Horrek eguneroko bezeruak, fiñak, e! Bai, bai.

- Eta nunbaitten apuntatzen zenduen edo ya bazekizuen...?

- Ez, ez, ez. Jakiñian! Fulana, ba... Margarita edo bestia edo bestia edo ta...

Hamar edo hamabi igual egoten zian bezero-etxiak. Ta etxe-etxeraiño esnia. Ta nik esaten neban: "Ni ezkondu kalera?" edo... "baserrira?". Etorri ta bedratziretan, artian, kamisoiaren batekin urtetzen zeбен. Hiru bidar-ta etorri ta ohian igual, ez dakizu? Neguan-ta. Ta han basarri puntatik etorri ta plazakua ein ta. Bi biaje ta etxera, zu, esniekin-ta. Ta esaten neban nik — orduantxe neuk hamabost urte, hamasei neukazen, baiña—, esaten neban: "Ni ez behintzat basarrira! Ni kalera! Aber lo eitten doten neuk be!"

Goizeko seiretan jaiki bihar izaten giñuan horrek gauza guztiok eitteko!

Astuari beran zestuak ipini eta lotu bera eta berdurak ipini, ta dana.

Plazara etorri, tratua hartu, juan etxera... Ta etxera juandakuan be egoten zan, ganauendako-edo kargan batzuk, arbixa edo nabua ipinita, artuakin-ta nahasi ta... Armozua ona gure amak! Hiru txarri ta hiltzen giñuzen hola zapi bat arrua ingurukuak. Ta txarrixak hiltzen giñuzen. Etxian urdaiazpikua ta txorixua ta dana egoten zan ondo. Ta berakatz zopia eindda eukitzen zaban gure amak kazuelatxuan, gaiñian arrautzatxua ta gaiñian urdai... urdaiazpiko zatitxua jateko. Ta ardaia be Bergaratik.

Esaten da alkoholizauta, baiña ardaia be, e... zera eruaten giñuan, zaragixa.

Bakizu zer dan, ezta? Erderaz "pellejo" da, baiña...

- Bai, esplikaidazu zelakua zan...

- Zaragixa zan, ba, narruzko haundixa, ba, igual eukiko zittuan, nik ez dakit, larogei litro-edo igual, kaiñaberiakin. Eta burdi motz-motza, burdi motzian Bergatik ekartzen [joskunan], "Manso" edo zan Bergakua, ta ardau

lodi-lodixa, beltza. Eta hori ardau hori, ba... Hiru kriau-ta eukitzen giñuzen etxian! Bat Elorrixokua, bestia oin, e... Gorrotxategi bertsolarixan aitta. Haura gurian kriau zeuan, hiru urte ein zittuan kriau gurian. Eta gurian lana ondo eitten zan, ezta? Lan asko. Baiña jaten be ondo, e! Gure etxian txarrixak eta oillaskuak eta ein bihar zana, edo bakaillaua edo... Gure ama be ez koziñan-ta ibillitta, baiña oso... labeko sua ta ogi bat-eta eitten zeban! Ogi bat-eta ederraua ta...

#### 4. Zahagi ardoaren inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-041/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:07:34. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

#### Laburpena:

Zahagia nolako izaten zen. 80 litro ingurukoa izaten zen eta gurdiari lotuta ekartzen zuten Bergaratik. Mahai gainean edukitzen zuten eta handik garrafoiak betetzen zituzten eta garrafoietatik botilak. Etxean denek edaten zuten ardo pixka bat, baita neskatilatan ere. Etxeetan ohitura izaten zen ardoa edatea, batez ere langintzetan.

#### Transkripzioa

- Ia, zaragixa, orduan, esan dozu dala...?
- Zaragixa da... "pellejo" esaten jako erderaz. Oin ez dakit egon be ingo dan holakorik. Ardaua sartzen zeuben, hor eoten zan, ezta?
- Larogei litro inguru kabitzen zian?
- Bai, larogei eukiko zittuan edo gehixao igual. Ta hori burdixan lotzen zan, mahaixonen moduko txikixa, holakotxe kuadrúa zan, ezta? Eta beran... sokekin ta lotuta eoten zan hau ondo ta kaiñabera bat eukitzen zeban, gero sartzen jakon muturra lotuta. Ta etxian, etxian be ipintzen zan, e... Guk, e... "obra barrixa" esaten gontsan, geunkan kutxia, garixak. Goixan bota, ta kutxak haundixak. Goittik garbittu ta bota, ta garixa. Orduan, badakizu, oin ez dao, baiña garixa urte guztian ta... Eta haretxen onduan mahaitxo bat euan ta gaiñian egoten zan. Eta etaratzen giñuan garrafoia, bete, lau edo bost egunerako-edo ta bost kuartilloko botillak zeozen, beltzak, haundixak, ta bi egunerako-edo hauraxe etara. Bost kuartillu, oseake, litro bi ta erdi edo ez dakit ze izango dian. Eta hauraxe etara ta meriendatan ta bazkaittan ta danian ardautxua. Geuk´e bai, e! [Behin] neska-koskortxuak giñanian be, harekin berakatz-zopiakin ta goizian be, bere zertxua, txikito modutxuan, bere ardautxuakin.
- Orduan ohitturia izaten zan basarrixetan edo...?
- Danian, ez gurian bakarrik, e! Etxe danetan, e!
- Ardaua eraten zan, e...
- Eraten zan langintzetan ta...

#### 5. Garia auzolanean ebakitzen zuten

- **Erref:** SOR-041/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Garia lehenago heltzen zen euren baserri inguruan beherago zegoelako. Itxaso, Aritzaga eta Iturrixa baserriak zeuden beheren. Garia heldutakoan goiko baserrietakoak behera etortzen ziren garia ebatzen laguntzera eta gero alderantziz. Auzolanean ere lan gogor egiten zen, baina gero merienda onak egiten ziren.

**Transkripzioa**

- Garixak-eta gurian heltzen zian lehenengo, behian. Gure etxia bastante behian dao, ba. San Andres baillian, bastante behian. Itsaso, Iturrixa ta Aritzaga dao. Eta, bai, behian. Ta gure... behian, hamabost bat egun lehenao heltzen zan garixa ta etxe guztietan euan garixa. Baiña guk ezin izaten giñuan ebagi etxeko familixiak garixa ta goiko basarrikeri esaten gontsen etortzeko laguntzera. Ta beste zortzi edo hamar basarritatik bajatzen zian behera. Goizeko beatzietan-edo etorten zian eta bazkaldu eta meriendau ta dana gure etxian. Enteditzen dostazu? Harik eta garixak ebai arte, e! Ta gero guriak ebatzen zienian, faten giñan berenak ebatera gora. Beren basarrietara gero joan bihar izaten giñuan! Goizian urten ta ordubeteko bidian ixa mendi ondoko basarrietara-ta! Ta gero ekixon han! Etxetik juan ta sorua be igual, barrenian, ta gora. Jaten ondo emoten zan orduan be, e! Bai. Meriendetan ta igual, azauak ipintzen zian hola illaran, ta fuentiak, bakaillaua edo igual tomatiakin-edo ta gaztaia gaiñian-edo ta ardaaukin ta... ondo, e! Baiña lana be gogor, e!

- Bai, ez?

- Lana gogor, e!

**6. Egurrezko komuna zuten baserrian**

- **Erref:** SOR-041/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena:**

<p>Baserrian ez zuten dutxarrik-eta, baina bazuten komuna. Egurrezko etxetxo moduko bat zen etxearen atzekaldean, baratzea zegoen aldera eta ganaduaren aurretik pasatu behar zen hara joateko. Ganaduen simaurra azei botatzen zieten eta oso aza onak izaten zituzten.</p>

**7. Sukaldearen deskripzioa; beheko sua, gelatza eta trebera**

- **Erref:** SOR-041/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena:**

Sukaldean beheko sua eta ekonomia zituzten. Beheko suaren aurrean gelatza egoten zen, goitik behera zetorren gantxo bat. Beheko sutan egiten zituzten talo eta morokilak eta bestelako jatekoa ekonomikan. Trebera ere egoten zen beheko sutan taloak egiteko. Treberak nolakoak izaten diren.

**8. Ehunezko arropekin betetako kutxa zuten**

- **Erref:** SOR-041/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Lixiba egiten zuten. Kutxa bat beteta omen zuten etxean ehunezko arropekin. Ezkondu zenean amak eman zizkion ehunezko zenbait izara. Gorua ere bazuten etxean.

**9. Lixiba: arropak albergan xaboiu eta tinan egosi**

- **Erref:** SOR-041/010
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

<p>Lixiba nola egiten zuten. Lehenbizi xaboiu albergan: kalean erositako xaboi-barrak zatitu, harekin harri gainean xaboiu eta albergan astintzen zituzten arropak. Gero tina handi batean sartu eta erramua, elautza, sutako hautsa eta sobratutako xaboi zatiak botatzen zitzaizkien. Sutako hautsa trapu baten gainean jarri eta ur-irakina gainetik botaz egosi egiten zen arropa. Arropak eskegizterakoan onenak jartzen zituzten jendea pasatzen zen lekuetan eta adabakiak zituztenak ezkutuan.</p>

**10. Arenaketa: etxeko zoruak hare eta espartzuarekin igurtzi**

- **Erref:** SOR-041/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena:**

<p>Pinu-ohola zuten lurreen eta "arenau" egin behar izaten zuten. Lixiba egin ostean tinan pasatutako xaboi-ura gorde eta harekin, harearekin eta espartzuarekin garbitzen zituzten etxeko zoru guztiak. Harea dendan erosten zuten, itsasoko harearen antzeko hare latzagoa zen.</p>

**11. Lixiba egiteko xaboa**

- **Erref:** SOR-041/012
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

<p>Lixiba egiteko xaboa dendan erosten zuten. Barretan etortzen zen eta gero zatiak egiten zituzten. Beraiek ez dute xaboirik etxean egin izan, baina beste baserri batzuetan bai. Seboa eta olioarekion egiten zen xaboa.</p>

**12. Ehunezko arropak**

- **Erref:** SOR-041/013
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Ehunezko arropaz betetako kutxa bat zuten etxean. Alkandorak gogor-gogorak izaten ziren eta uretan sartu arren ez ziren biguntzen.

**13. Lehenengo labadaro ikusi zueneko kontakizuna**

- **Erref:** SOR-041/014
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Kalean inork ez zuen labadorarik bera ezkondu zenean. Sasoi batean etxerik etxe ibiltzen zen koltxoiak jotzen eta orduan ikusi zuen lehenengo aldiz labadora. Harrituta geratu zen.

## 14. Ehunezko arropak

- **Erref:** SOR-041/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

### Laburpena:

Ehunezko arropak. Gogoan du linoa baserrian egin arren gero Bergarako fabrika batera eramaten zirela rolloak (obilloak?) han arropak edo ehuna egiteko. Bere koinatak erroatarako zakuak egin zituen ehunezko arropekin, tela latza eta gogorrak ziren eta. Berak kutxan aurkitu zuen alkandora bat dotore egina zegoen.

## 15. Aitak bi seme-alaba zituen amarekin ezkondu zenerako

- **Erref:** SOR-041/016
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Ama oinarra zen, neskame etorritakoa. Aita, berriz, berak 14 urte zituela hil zen. Amak 20 urte eta aitak 36 zituzten ezkondu zirenean eta aitak bi seme-alaba zituen lehendik 14 eta 16 urtekoak. Eurak 5 anai-arreba ziren, beraz, 7 guztira.

## 16. Amaren bizimodua; abarketak ez puskatzearren eskolara oinutsik

- **Erref:** SOR-041/017
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Ama oinarra zen, estazio ondoko etxe batekoa. 9 anai-arreba ziren eta aitaren soldatarekin gutxi zenez ama (Mariaren amona) lanera joaten zen gariak lotzera. Ordainean gazura ematen zioten eta seme-alabek jaten zuten bueltan jarrita. Eskolara joaten zirenean amak esaten zien euria eginez gero abarketak kentzeko, berriak erosteko dirurik ez zuten eta. Euria egiten zuenean abarketak lepotik jarri eta oinutsik ibiltzen ziren. Jatekoagatik demandan ibiltzen ziren. Aita karakter gogorrekoa omen zen.

## 17. Oinarriko aitona malatura joaten zen arrantzara

- **Erref:** SOR-041/018

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

Amaren aitak fabrika lan egiten zuen eta handik irtendakoan arrantzara joaten zen fabrika ondoko "malatu"-ra. Mariaren ama gazterik etorri zen Soroluzera. Ume-zain etorri arren denetarik egiten zuen. Malatua: ura joateko kanal estua. Amorraiak egoten ziren kanalean.

## **18. Ahizpa biriketarik gaixorik egon zen**

- **Erref:** SOR-041/021
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:02. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena:**

Tuberkulosia zuten gehienak hil egiten ziren lehen. Bere ahizpa biriketarik gaixo egon zen eta bi urte egin zituen geldirik. Egunero txuleta eta sei arrautza jaten zituen. Mariak astoan jaisten zuen kalera ahizpa Artadi medikuarengana. Neumotorak ematen zizkion medikuak; haizea sartzen zen biriketara birikak lehortzeko.

## **19. Baserriko bizimodu gogorra**

- **Erref:** SOR-041/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

<p>Goizean kalera joaten zen tratuarekin eta handik itzultitakoan idiak hartu eta garotara mendira. Menditik itzultitakoan garia hustu eta bere lekuan jarri behar izaten zen. Udazkenean artoa egoten zen eta artoaren burua zuritu behar izaten zen.</p>

## **20. Erregetxean zegoen berdura-plaza**

- **Erref:** SOR-041/023
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:39:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

Plazako harremana jendearekin. Herrian bazeuden prezioak regateatzen zituztenak eta baita disimuloan esandakoa baino ale gehiago hartzen zituztenak ere. Baina horiek denek ezagutzen zituzten. Erregetxean egiten zen tratua. Goian balkoiak zituen eta behean plaza. Astotokia ere bazuen astoak lotzeko. Herriko gutxi egoten ziren plazan eta Bergararik etortzen ziren. Bergarako Boluberri, Zubikoa eta Mekoleta baserrietakoak zaldi-karroarekin etortzen ziren.

**21. Patata esandako tasatik gora saltzearren udaletik abisua**

- **Erref:** SOR-041/024
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:39:32. **Bukatu:** 00:42:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Patatarekin gertatutakoa. Patata gorri ederra zuten etxean maiatzerako heltzen zena. Errazionamendua zegoen garaian patatak bi pezetako tasa zuen, baina berak 2,50ean saldu zuen, estimazio handia zuen eta. Udaletik abisua eman zioten ez deskuidatzeko berriz tasatik gora kobratzen, hori Francoren aurka egitea zela eta. Bi emakume goizean patatarik gabe geratu zirela eta baserrira joan zitzaizkien bila.</p>

**22. Errazionamenduko jateko eskasa; oliorik ez**

- **Erref:** SOR-041/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:42:15. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Gerra-denboran eta rasionamendu denboran jendeak gosea pasa zuen kalean. Emakume bati arto-irina eta ogirina saldu zizkieten eta hurrengo egunean esker modura anis botila eta txokolatea eman zizkion Mariari. Errazionamenduan ematen ziren ogia eta boniatoa (patata) nolakoak ziren. Oliorik ez zegoen eta seboarekin moldatzen ziren. Azukre beltza egoten zen; inguruko emakume batek Frantziatik ekartzen zuen azukre zuria eta hari erosten zioten. Baserrian izaten zuten jatekoa, hala ere.</p>

**23. Beste etxeetako lixibari begiratu egiten zitzaion**

- **Erref:** SOR-041/026

- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Arropak zintzilikatzerakoan jendea pasatzen zen aldetik arroparik onenak jartzen zituzten eta adabakidunak ezkutuan. Lehenago begiratu egiten zen beste etxeetako lixiba kolore onekoa zen edo nolakoa zen. San Andresen frontoi ondoan etxe bat zegoen. Bertan kaleko batzuk bizi ziren goiko aldean. Behin arropak esegitzerakon adabakidun izarak bistan eskegi zituen. Jendea etortzen zen frontoira pilotan jokatzera eta beheko etxejabeak arropak ikusirik haiek bistatik kentzeko eskatu zion goiko bizilagunari, jendeak bereak zirela pentsa ez zezan.

## 24. Laneko arropak adabakiz josita; lexikoa

- **Erref:** SOR-041/027
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:47:12. **Bukatu:** 00:50:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Adabakiak. Tailerreko arropari ere adabakiak egiten zitzaizkien. Aurrea apurtutakoan beste fraka zahar batzuen atzearekin aurre berria egiten zitzairen. Makinan josten zituen arropak. Orduan normala izaten zen arropak etxean konpontzea. Adabakia eta txaplata gauza bera da. "Burkua": almohadaren funda. Alde bata itxia izaten zuten eta bestea irekia, zintekin lotzen zena. Eskegitzeko amak esaten zien alde itxia goian zela eskegitzeko. Ohean ere adabakidun aldea azpira jartzen zuten.

## 25. "Arpilera" eta "zaku-kiskua": esanahia eta erabilera

- **Erref:** SOR-041/028
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:50:44. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

"Arpilleria" eta "zaku-kiskua" berben azalpenak. Lixiba egiterakoan tinaren gainean jartzen ziren eta haien gainean erramua, elautza eta sutako hautsa jartzen zen. Ur-irakina gainetik bota eta arropa garbi eta usain ederrarekin geratzen zen.

## 26. Etxearen egitura; logelak

- **Erref:** SOR-041/029
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Sukaldean ontziak edukitzeko armairua zuten. Eskaileretan gora igota bi oheko gela zegoen eta beste gela bat hutsik edukitzen zuten norbait zetorrenenerako argizaria emanda. Erleak zituzten etxean. Kaletik etortzen zen gizon bat erleak ateratzera. Ontzikada ezti ateratzen zuten eta argizaria gela horretako lurrari brilltoa ateratzeko erabiltzen zuten. 8 ohe zituzten guztira etxean.

## 27. Korta zaharra zuten; egitura, lexikoa

- **Erref:** SOR-041/030
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

Ganadua ere bazuten etxean. Sukaldetik harrizko korridorea zuten kanpora eta gandua aparte zegoen. Haiek ere atarira zuten irteera. Komunera joateko ganaduen aurretik pasatu behar izaten zuten. Korta simaurrez beteta egoten zen. Behiak jezteko batzuetan garbitu egin behar izaten zituzten aurretik. Ganadu-askak egurrezkoak ziren. Askaburua belarra edukitzen zen lekua zen; askaurrea. Txerritokia.

## 28. Neskame eta morroiak; soldata, eginbeharrak eta tratua

- **Erref:** SOR-041/031
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:56:28. **Bukatu:** 01:00:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

<p>Bi-hiru txerri hiltzen zituzten urtean. Lan asko egin behar izaten zuten baina goserik ez zuten izaten. Bi-hiru morroi-neskame izan zituzten etxean. 300 pezeta kobratzen zituzten urtean eta arropa ere egiten zitzairen. Nongo neskame/morroiak izan zituzten. Morroiekin batera laixetan ere ibiltzen zen bera. Ganadu-zain lanak. Neskame eta morroiek denetarik egin behar izaten zuten, batez ere soroko lana eta ganaduari azpiak ateratzea. Urteak egin zituzten neskame/morroiek euren etxean.</p>

## 29. Arto-malutazko koltxoiak

- **Erref:** SOR-041/032
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:00:24. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

### Laburpena:

<p>Koltxoiak lanazkoak izaten ziren. Berak ez zituen ezagutu, baina amak kontatuta daki lehenago artoaren malutarekin egindako koltxoiak bazirela. Ama neskame egon zen lekuan halakoak zituzten eta koltxoi haiek berdindu ezinik ibiltzen zen.</p>

## 30. Gari-jotzea sabaian egiten zen

- **Erref:** SOR-041/033
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:01:30. **Bukatu:** 01:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

<p>Sabaia ganaduaren gainean zegoen, eta belar-ondoa eta garoa edukitzen zuten bertan. Garia makinan jotzen zuten. Emakumeak normalean garia lotzen ibiltzen ziren, baina bera ebakitzen ere ibiltzen zen. Hasieran eskuz jotzen zen garia; gero, ganadurekin erabiltzeko makina bat ere egon zen, baina azkenean makina aurrerratuagoa iritsi zen.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-03-31*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com